## LARRIALDIEN KUDEAKETARAKO ETA BABES ZIBILERAKOZUZENDARI NAGUSIA

Pedro Luis Izaga Alonso

Bilbon (Bizkaia) jaio zen 1961. urtean.

Prestakuntza akademikoa:

Industria ingeniari teknikoa. Espezialitate mekanikoa. Bilboko Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola
Industria ingeniaria. Industria antolaketako espezialitatea. Bilboko Telekomunikazio eta Industria Ingeniarien Goi Mailako Eskola Teknikoa
Eraikuntzaren Ingeniaritza Masterra EHUn (2013-2014)

Trebakuntza osagarria:

Autobabeserako planak egiteko teknikari eskuduna (2013).
Tokiko Zuzendaritza Publikoko Programa Aurreratua (2008-2009).
Udal Kudeatzaileentzako Kudeaketa Estandarren Programa (2005, 2006 y 2007) Suteen Prebentziorako Diplomadun Europarra CFPA (1992).
Ertzaina. Bosgarren promoziokoa.

Lan esperientzia:

2015-2019 Bilboko Udala. Obra, Zerbitzu, Hiri Eraberritze eta Espazio Publikoaren Saila. Bizi Kalitate eta Jasangarritasuneko zuzendariordea.
2001-2015 Bilboko Udala. Babes Zibileko Arloa. Babes zibileko zuzendaria.
1995-2001 Bilboko Udala. Babes ZibilekoArloa. Eraikin eta jardueren ikuskapenerako bulegoko burua.
1990-1995 Bilboko Udala. Babes Zibileko Arloa. Babes Zibileko teknikaria.
1989-1990 Procome, S.L. Ingeniaritza-proiektuen arduraduna.
1984-1989 Ertzaintza. Arkaute Akademiako irakaslea.

Irakasle lanetan izandako esperientzia osagarria:

- Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola. Segurtasun eta Larrialdietarako Graduko Hiriko Arriskuen irakaslea eta Segurtasun eta Larrialdietarako Graduko gradu amaierako lanen zuzendaria.
- Ergonomia Euskal Institutua. Goi maila lan arriskuen prebentzioan.
- Segurtasun Zuzendarientzako Ikastaroak ASSIMAG enpresan.
- Ertzaintza. Irakasle hizlaria Arkaute Akademian, ikuskizun publikoen eta aisialdirako jardueren segurtasunean.

Hizkuntzak:

Euskara (1. hizkuntza-profila) eta ingElesa (Merkataritza Ganberako 3. maila).